

Omenduak

Korrikako edizio orotan izan ohi dira omenduak. Aurten, euskaldun berriei tokatu zaie ohore hori edukitzea. "Bazen garaia gure ikasleak omentzeko", dio Borja Arbelaitzek. Honez gain, iaz zendu zen Andolin Eguzkitza euskaltzaina ere omenduko dute.

tolakuntza batzordeetan egingo da. Batetik, herrietan sortzen diren batzordeak daude. Bestetik, eskualdekako arduradunak, eskualde bakoitzean Korrikaren inguruan izaten diren ekitaldiak moldatzeaz arduratzen direnak: antzerkiak, kontzertuak ... Azkenik, batzorde nazionala dago. Hemen, abestia erabakitzen dute, Korrika Bekak emateaz arduratzen dira eta Korrika Kulturala antolatzen dute. Borja Arbelaitzek ONi adierazi dioenez, aurten Oarsoaldean Korrika Kulturalaren barnean zer egingo den ez da oraindik erabaki: "Proposamenen zain gaude".

► **IBILBIDEA.** Ibilbidea erabakita dago jada, Orreagan hasi eta Bilbon izango du amaiera Korrikak. Martxoaren 10etik 20ra. Euskal Herriko hamaika bazter euskararen festan murgilduko dira. Oarsoaldeari, hilaren 12an tokatu zaio lekukoa hartzeko txanda. Aldaketak egon daitezkeen arren, eguerdi eta arratsalde partean iritsiko da Korrika eskualdera.

Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai! lemapean ibiliko dira milaka euskaltzale hamar egun horietan. Hau baita aurten auke-

ratu duten lema. Arbelaitzek euskaldun berriekin lotzen du leloa: "Euskara ezagutzen ez duena hizkuntza ezagutzera gonbidatzen du". Hala ere, bai Arbelaitzek baita Ilarretak ere, ikastea ez dela nahikoa gogorarazten dute: "Oso garrantzitsua da egunero bizitzan euskara erabiltzea". Bien aburuz, "euskararekiko konpromisoa norberak hartu behar du". Ildo honen, Korrika sinbolo gisa ikusten du Aitor Ilarretak: "Korrika jendearengana iristen da, etxe ataritik pasatzen delako Korrika, Tuteratik zein Azpeititik, bietatik igarotzen da. Euskararekin ere gauza bera egin behar da, jendearengana eraman eta erabili".

► **ERASOAK.** Azken urteetan AEKk jasan dituen erasoak direla medio, duela bi urteko edizioan Korrika laguntzeko kanpaina jarri zuten martxan. "Ez da ahaztu behar Korrikaren festa helburu ekonomikoa ere baduela", dio Arbelaitzek. Horrela, kanpaina honen zeregina Korrika antolatzen eta AEKren kontrako erasoen ondoren ezarritako zorra kitatzen laguntzea da. Aitor Ilarretak irakurketa erromantikoagoa egingo du honen inguruan: "Kanpai-

na honen bitartez jendeak pertsonalki laguntzen du". Izan ere, hasierako edizioetatik Korrika Lagun izeneko beste kanpaina bat dago martxan. Hemen ere, diru laguntzak eskatzen dira; baina, enpresa eta negozioetan bakarrik. Joan den edizioan sortutako kanpainak, ordea, "inplikazioa pertsonalagoa izatea bideratzen du", gaineratu du Borja Arbelaitzek.

► **BITXIKERIAK.** 1980an izan zen lehen edizioa. Ordutik hona gauzak aldatu dira, helburuak aldiz, bera izaten jarraitzen du. Hainbat bitxikeria ere gertatu dira hamalau Korriketan zehar. Aitor Ilarreta azken edizioetan Korrikaren furgonetan ibili da Euskal Herriko bailara guztietan barrena. Pozik gogoratzen ditu egun haietan gertatutako pasadizoak. Momento hunkigarriak pairatu ditu: "Ez dut inoiz ahaztuko Otsagabian lekukoa zeraman 80 urteko agurearen negarra. Korrikan ateratzea bere urtebetetzeko oparia izan zela esaten zuen". Tentsio uneak ere izan dira hainbat ediziotan. Oreretan, udaltzainei Madalena kalean pibot bat kentzea ahaztu zitzaizkioneko gogoratzen du Ilarretak: "Momento larria izan zen, Korrika gelditu behar izan genuen, atzera buelta eman eta Maria de Lezotik pasa ginen". Beste larritasun una Irunen izan zuen Korrikak: "Pertsona talde bat harrika hasi zitzaigun".

Une gozo eta oso onak asko izaten direla dio Ilarretak. Herritarren eskuzabaltasuna ere nabarrena da Korrika egunean: "Behin, Pasaiako mutil batek otarrainkak ekarri zizkigun furgonetan geundenontzat". Barrez orotzen du Aitor Ilarretak Ermuan izan zen gertatutakoa: "Euskaldun berri koadrila bat goizaldeko ordubetetan izugarriko hotzarekin larru gorritan atera zen korri egitera", modu honetara beren herrian euskaraz bizitzea zein zaila den salatu nahi zuten. ◀



“Odon Elorzak, neurriak hartzea exijituko du”

Gai honek duen garrantziaz jabetuta, ONeko ikuspuntu ekologikoari hitzik eman gabe ezin gera gintezkeela iritzi dionez, Ekologistak Martxan-eko kidea den Kepa Olaiz oiartzuarrarengana jo du.

Inoiz eman al dizue San Markoko zaborte- giak buruhausterik?

Duela 12 bat urte Pasaiako Molinao aldean isuri susmagarriak agertu zirenez, herritar askok protestak egin zituzten. Garai hartan zabortegien jarduna arautzen zuen legedia nahiko malgua zen, eta ez zituen ingurumena ez kaltetzeko hainbat arlo garrantzitsu kontuan hartzen. San Markoko zabortegiaren kasua ez zen salbuespena, eta bere antolaketa eta kudeaketa nahiko anarkikoak ziren. Batetik, bertaraten zen zaborra ez zuten sailkatzen; bestetik, ur zikin guztiak inolako tratamendurik gabe Molinaora isuritzen ziren. Gezurra badi-rudi ere, guk Aldundiaren aurrean horien isuria salatzen erabili genuen argudio bera darabil-te uneotan mandatariek, egungo zabortegien alde txarrak nabarmenduz erraustegi planta-ren beharra aldarrikatzeko.

Urtegi erraldoien aldean urtegi txikiak ho- besten diren bezalaxe, irtenbidea zabor- tegi txikiak kokatzean legoke?

Zaborrari bestelako tratamendua eman behar zaio. Denok osatzen dugun gizarte kontsumis-ta honetan zabortegiak ezinbestekoak dira. Berauek kudeatzeko modua, baina, aldatu behar da. San Markoko zabortegiaren ibilbi-dea, egia esan, nahiko positiboa izan da, urte-etan antolaketa hobetu baitute. Baina manko-munitateak bestelako baliabide berriztzaile-ak ere balia litzakeelakoan gaude. Esaterako, materia organikoa lehenbailehen bertan trata-tzeko instalazioak jartzeari derrigorrezkoa de-ritzogu. Aurrerapauso hau ematearren, hain-bat gauza aldatzeari ekin beharko litzaioke. Lehenik, zaborra biltzeko era aldatu beharko litzateke, materia organikoa propio botatzeko zabor ontziak jarritz. Bigarrenik, legea aldatu.

Bi aldaketa proposatzen dituzu: ohitura eta legea. Nola transmititu hau gizarteari?

Ohiturari gagozkiolarik, gaur egungo gizartea, oro har, eroso samarra dela esan behar da.

Politikariak honetaz jabetu direnez, oso erraz saldu dezaketae errauste plantaren ideia: etxean inongo bereizketarik egin gabe zakar poltsa bota eta kitto. Kontzientziario kanpai-nak antolatu behar dira, luraren etorkizuna etxetik bertatik hasten dela ikusarazteko. Best-alde, legedi berri bat arautu beharko litzate-ke, non bilketa selektiboa ez ezik, arauak urra-tzen dituen orori isunak ezartzeko ahalmena ere emango lukeen.

Legedia izan, bada.

Gai honen inguruko azken legeek, jatetxeek zein supermerkatuek sortzen duten txerrijana-ren borondatezko tratamenduari buruzko ai-pamen hutsa baino ez dute egiten. Araudi berri batek denok sortzen dugun hondakin or-ganikoa sailkatzera behartuko bagintu, zabor-tegien ur zikin eta espazioaren arazoa, hein handi batean bederen, konponduta geratzeaz gain, konpostajearen bidez sortuko litzateke-en produktua berrerabil liteke. Zorionez, iritzi hau ez da gurea soilik. Primizi moduan, errauste plantaren kontra dauden ONeko irakurleei albiste ona baino hobea emateko moduan nago: Donostiako alkate Odon Elorzak ere uste bera duenez, honen aldeko neurriak har-tzea exijituko du aurrerantzean mankomuni-tateko kide izaten jarrai dezan nahi ba-dute. Beraz, errauste plantaren mamua urrunduz bide doa.

Hala eta guztiz ere, San Mar- koko zabortegiaren ibilbidea amaitzear da, ezta?

Zenbait komunikabidek irau-n-gitze data jarri diote: 2006. urtea. Guk esku artean darabil-tzagun dokumentuen arabera, bi azterketa egin zirela egiaz-tatu ahal izan dugu, non bertan azaltzen diren datak 2008. eta 2009. urteak, hurrenez hurren, baitira. Gaur egungo teknologia erabiliz, eta organikoan tratamenduari lehenbaile-hen helduz, San Markoko zabortegiaren biziraupena de-zente luza litekeelakoan gaude.



Zabortegia baina errauste plantaren aurka gaude erabat”

“

”

“

”



Gaur egun nekazal turismoaren erakargarritasuna inor gutxik zalantzan jartzen badu ere, San Markoko zabortegiaren inguruko ezein baserritarrek ez luke inondik inora ere pentsatuko turismo mota hau gustuko duen jenderik erakar lezakeenik. Izan ere, paraje honek Donostiaren edertasunaz goxatzeko parada ezin hobea eskainiagatik ere, bertan kokatu zabortegiari darion kiratsak burutazio idilikoetan galtzeko tentazioa bertan behera lagarazten dio edozeini.

Errealitate gordin honen gaineko testigantza eman lezakeen lekuko baten bila ibili da ON. Baita aurkitu ere. Hauxe duzu, irakurle, Aloña Oiartzabal, bertan jaiotako alabaren ahotik entzun duguna.

Zenbat baserri daude zabortegiaren inguruan?

Eguzki Borda, Borda Zahar, Txapinene, Txurdinene... Dozena bat inguru, esango nuke.

Zabortegia dela eta, inoiz kexatu al zarete?

Kexatu, beti. Usain txar baino txarragoa dago. Hasieran, gaueko kiratsengatik, batez ere, hasi ginen kexatzen. Dena den, hemen egun osoan dugun perfume honen intentsitatearen neurria haizeak jartzen du.

Jasangarria ote da?

Egia esan, denboraren poderioz gorputza ohitu egiten dela dirudi.

Batzuetan etengabeko kirats honetaz konturatu ere ez gara egiten, eta, ohartuta ere, nondik datorren badakigunez, ez

gara gehiegi kezkatzen.

Hala ere, kirats honek ondorio larririk ote duen jakiteko azterketarik egingo zenuen, ezta?

Hasiera batean nahiko kezkatuta azaldu ginen eta oraindik ere horrela gaude. Kaio ugari ibiltzen dira inguru hauetan zehar, eta eskegita ditugun arropa guztiak kakaztuta bukatzen du. Gauzak horrela, zabortegiak zerikusi zuzena bazuela ondorioztatu genuen. Hori zela eta, Udalari zabortegiak gizakiongan eraginik ote zuen jakiteko azterketak egin zitzaizkion eskatu genuen.

Emaitzak?

Negatiboak. Hala ere, emaitza horiek gure errezeloa baretu ez zuten, aireko kiratsa matorrotzeko probak egiteari ekin zioten. Horretarako gas berezi batzuk botatzen hasi ziren, baina arazoa okertu baino ez zuten egin. Gogoan dut, garai hartan begietan eta ez ohiko mina azaltzen hasi zela.

Hura komeria!

Gas horiek toxikoeziak zirela ohartu bezain laster airean ezabatzeari utzi zioten. Eskerrak!

Zabortegia ezarri gero gaixoen kopurua handitu al da?

Ez dugu daturik. Dakigun gauza bakarra zera da, gure bizi-kalitatea besteena baino laburragoa dela. Lehen aipatu dudan bezala, zenbait unetan horretaz jabetzen ez bagara ere, gure eguneroko bizimoduaren traba bat baino ez du suposatzen.

Etsita?

Amorratuta. Ez da baxterez gozoa arropa garbitu, zabaldu eta janzen dugunean kirats higuin-garri hori itsatsita edukitzea. Usaintze hutsak...

Zabortegiarenak egin du, antza.

Pozik?

Zoratuta! Ea behingoz aire garbia hartzen hasten garen! Dena den, honek ez du esan nahi errauste planta jartzearekin bat gatozenik. Ezta hurrik eman ere! Hemengoan laster batean itxiko omen dutelako poztzen gara, besterik gabe. ◀